

Bat-Hiruri buruz

Xoriarenari kantua deitzen zaio, astoarenari arrantza. Zergatik bati kantua eta arrantza besteari, etorki berdinekoak izanik? Biak dira behar biologiko baten adierazpen.

Bihotzak edo buruak edo biak batean bialtzen dute agindua. Oinetatik abiatuz sexotik iraganaz sabel-urdailean zehar biriketan barru zintzurrian gora buru-sapaia jo ondoren ahotik jalgitzen den indarra da kantua. Aaaaaamma.

Hitzik ez hotsa du xoriak adierazpide bakarra eta kantua ederra du; arrantza ozena da. Xoriak, nahiz basoaren naharotasunean nahiz kaiolaren murriztasunean kantatu egiten du; era batean han, beste batean hemen, edota bietan berdin ari den ez dakigu. Egokera berdinean geure burua jarriz zerbait suma dezakegu. Halere, kale gorrian goserik dabilenak espetxeokari honela esan dezaioke: «hik gutieneik baduk zer jan zer edan, eta baduk aterbea ere; ni aldiz hemen, ez zerurako ez lurrerako». Espetxeokoa erantzuna, bestalde, honen gisakoa izan diteke: «zertarako dizkiat jana eta aterbea, noranahi joateko hik dukan bezalako aukerarik ez badut?» hemen sortzen da betiko kakoa, historiaren leloa.

Kantua indar eraginkorra da: elkar aditze, elkar laguntze, elkar osatze bat. Xoriak, bakarrik kantatzen du; bere beharrak betetzeko, bere lekua mugatzeko. Mikel, bere burua osa-

tzeko ezinbestekoa zuen herriari eta honen erantzunari hasi zen kantari.

Herrian denboretan zehar, maitasun eta gorrotoan ondu ziren kantuetara jo zuen, izkutatu diguten kondairaren bila, gure kantukeraren atzetik, ikasi ahala herriz herri besteei kantatuz, gure hegoalde honetako jendeok beste eskualdetako kantuen berri ukan genuen, hau da, gure historiaren alde baten berri.

Gogoratzen naiz nola behin, ea zer izango litzatekean biderik egokiena artearen berri herkideei emateko, zaharretarik hasi eta berrietaraino edo alderantziz, Zumeta pintalariarekin mintzatzen nintzelarik, zer zion honek: «nahiz Bach nahiz Haendel, John Cage bezain ezezagunak dituk herri zabalaren aurrean; bi bideak berdintsuak iruditurik, nik neuk nahiago nitek musikalari berrietarik hasi, Cage-ena, gu bizi garen garai berean ondutakoa izanik, Bach-enak baino errezki eta sakonkiago hartuko bait gintuzke».

Mikelek ez zuen kanta zaharretara jo, berrien beldur zelako. Denborak erakutsi digu ez dela izan hala, atzoko kantukeran oinarritu zen, han alfabetizatu zuen bere burua, gaurko borrokaren adierazpen izateko beharrezko zeritzaion.

Herriak beti zahar beti berri izaten dira; eta garaian garaiko, eta lekuan lekuko mendez mende egosi duten tankeraz sortzen zaizkien galdekizunei erantzuna ematen saiatzen dira; honexek, hain zuzen, beren nortasun bakana eta orokorra finkatzen dute. Mundu zahar honetan berririk proposatzen ez duenak, dela artegintzan, dela gizarte borroketan, mundu zaharretarako merituak biltzen ari da.

Defentsibako garai batean lizar makilak bere tokia betetzen du, eta behar du. Gora sukarrietakoa! bainan garai hori herri horretako norbaitek gainditzen badu eta garaiari doakion zerbait berri proposatzen badu, esan diteke, munduaren gaindi munduari zerbait berri proposatu diola; desapio egiten die

bai herkieei, bai munduari; dema sortzen du, alde eta aldiaren lekuko baita. Defentsibatik ofentsibara pasa da.

Euria ari du, atertugabe; gauza ezezaguna gure herrian. Inperioak geroztik handik gora ari beharko du (beste mailamuga bat jarri zaio) baldin eta herri horretan sartuko bada. Zenbait, errealitatearen izenean forma zaharrei bakarrik lotzen dira, baina ezin dute estali laino artean ibiltzeko duten gogo bizia, edo ezezagunaren beldurra edo taktika edo komertzioa.

J. Joyce-ren pertsonajeak ezagunak dira, hizkuntza laua, baina *Ulises*-en eho duen sareak kolokan jarri du mundu hau.

Mikeli, kantugintzan, hiru aro nabaitzen zaizkio: kantu zahar guti ezezagunena, garaiko beste poeten olerkiak musikatzeko dituenena eta hitz berriak sortu nahi dituzten hots joko ondutuen kantuenena. Aroak ez darabilzki erlojuaren legean. Berdin dabilza atzetik aurrera nola aurretik atzera; bata besteekin gurutzatuz, orain jauzika, orain nahasian, gero ordena berezi batean emateko. Iragandako paradisuak ez du bere sare goxotan arrapatu kantu zaharraren esperientzia berbizituko du eta bere soiltasunean erabiliko, lekukotasun emateko; hala nola *Txinaurria* edo *Lanikan ezin egin*, baina, baita ere, baldin eta kantuak hala eskatzen badiot, kantuaren eitea hautsi gabe, harri bat bailitzan, bere disdira izkutuak agerazteko (*Haika mutil*-en kasuan) edo duen indar bereziari (epikotasunari *Bereterretxen kantboria*-ren kasuan) beste ozentasun bat emanez, une berean, zenbait kantuk duten iraunkortasuna erakutsiz.

Mikelena, Espriu, Landart, Aresti, Brecht. Lete eta Harzabalaren poemak musikatu ditu.

Haurtzaroak asko markatzen du jendea eta bere kantugintzarekin zerikusirik duelako, Mikelenaz ere zerbait esan beharra dago. Aspaldirik daramagun etengabeko gerratearen mementurik hitsenetakoan, aita kanpoan zelarrik, ez bere bo-

rondatez, Mikel bere familiarekin, beste askok bezala, sortetxetik lekutu beharra izan zuen. Lekeitioko baserri batean aurkitu zuten pausalekua, edo gordelekua. Gernikatik ez oso urrun; hango berriak bitartekorik gabe jasotzeko moduan. Mikel, garai haretan, Lekeitioko kaleetan arrantzaleak botatzen zituzten oihuak, ontzira joateko edo arraina saltzeko edo lanerako deiak gogoan ditu. Bere kantu esperimentalak egiterakoan iturri hoietan edan duela aitortzen du eta nahiz gerroztik urak bide egin duen, ez da iturriaz ahaztu eta kanta sail hori Lekeitio izenaz izenpetzen du.

Baztan abestian, denboraz gaindi, Bach-ekin edo zenbait Xuberotarrekin mintzo dela dirudi; *Gernika*-n, Penderecki-*ren* *Aschwitz* eta Picassoren *Guernica*-ren munduan bizi dela nabari da; *Baga, biga, biga*-n, nork ez du ikusten Roy Hart teatralariak azken mundu gerratean bizi zituen esperientzia saminen ondorioa eta hauetan oinarrituz hitzaren biologiarekin egin dituen saioak? Gernikan laurak edo lauretan Gernika? musika, plastika eta antzerkia beren ohizko hizkuntzetan hertsiegiak eta agortuak aurkitu dituzte; gizakumearen biluztasunera jo dute, ohizko formak hautsiz gaurko hizkuntzaren eraikitzera.

Izan ere, oinetatik igoerazten denean kantua, hitza zenbaitetan izaten da lurraren ikara edo haizearen egonezina adierazteko; mugatuegia, esanegia, hitza, bera sortu duen mundua bezain nahastua eta kutsatua heldu zaigu, bere indarra eta funtsa galdurik. Ikasi dugu hitza itxuraldatzen eta beraren bidez gezurra egia bezala esaten. Hainbatetan erabili dugu joko hori, non azkenean geronek ere ez dakigun zer den egia, zer gezurra. Orroa eta marruarekin ez da hori gertatzen; ez da hain erraz asperena edo karraxia disimulatzen eta zurikeriaz apainduta ematen; Xede horrekin hurbildu da Mikel hitzaren harrobira, hotsaren eremura, gaurko behar dituen harri hutsen bila. Hotsaren eremuan ez dago heldutokirik; hotsak, arrazoizko bide markatuetatik kanpora deitzen gaitu eta umezur-

tz uzten basan; eta utzitako paradisuara itzultzerik izango ez ote dugunaren beldurra sartzen digu hezurretaraino. Mikelen etxean ere bada beldurrik, bainan bere *Baga, bida, biga, Dialektikaren laudorioa* eta *Gernika* kantuetan bereziki, atea doi-doi iragaiten ausartu da.

Askotan iruditu zait, Mikeli, abotsa eztarri-matrail-mihi elbarritu artetik aterako balitzaio bezala; bortxazm nekez, enpatxatutako zakurrak lurra eta bazterren kontra arraskatuaz bere libramenduz –penaz eta kantuari halako dramatismo arrunt bat ematen dio eta loaren inguruko amets giro bat ere bai.

Hirugarren diska borobila da. *Haika mutil*, lehenago grabatuarekin hasten da eta *Bereterretxen kanthoria*-rekin bukatzen lehen alde; bigarrena, berriz, *Gernika*-rekin, eta hemen sartzen den poeman Bereterretxenari falta zaion zatia, zoriz hala gertatua, ematen da, eta hasi bezala *Haika mutil*-en doinuarekin bukatzen.

Diska hauk, beste kontserban ematen diren kantuen alde on eta txarrak (gehiago) ditu. *Gernika* edo *Zaude lasai* latzago eta indartsuagorik entzun diogu Mikeli, jendaurrean kantatzerakoan. Halere, diska hauk argitara ematea interesgarria da, Mikelen kantu mordo bat elkaturik eta bere lana halako zabaltasun batekin ikus baiditezke. Bestalde, Mikel, Ez Dok Amairu ohikoa izanik, duela pare bat urte talde honetakoek beren nortasuna zehaztu eta finkatu beharrean aurkitu zirenean eta bakoitza beren bidetik abiatu, diska hauen argitara emateari garrantzizkoa deritzait, zernolako bidean jarraitzen duen Mikelek ikusteko, *Baga, biga, biga* sentikaria izan zen esperientzi eta probalekuaren ondoren.

J.A. ARZE, 1974

Acerca del Bat-Hiru

Se dice del pájaro que canta y del asno que rebuzna. Mas por qué llamar «canto» al sonido que emite el ave y «rebuzno» al del orejudo cuadrúpedo, cuando ambos son el producto de una idéntica materialidad anatómica? Ambos, también, el trasunto de una necesidad biológica común. Corazón y cabeza, o mejor, los dos a la vez, nos determinan. El canto es una fuerza oscura que brota de los pies, alcanza al sexo, atraviesa las entrañas, se expanden los pulmones, y, garganta arriba, se estrella en el duro muro cervical antes de salir por la boca: Aaaaaamma.

El pájaro no articula palabra, pero, a falta de este medio de expresión, logra hacerse inteligible por el mero sonido. Y su canto es bello. El rebuzno le gana en sonoridad. El pájaro canta lo mismo en la inmensidad de la selva como en la estrechez de su jaula. Si su canto tiene la misma cualidad en ambos lugares es algo que ignoramos; no lo podríamos saber sino colocándonos en su situación. De esta forma podría dirigirse también al prisionero quien pasea su hambrienta existencia por la calle: «Tú, al menos, comes, bebes y te cobijas bajo techado, yo me hallo sin más amparo que las estrellas». Es fácil prever que la respuesta del prisionero fuera de esta guisa: «¿De qué me sirven comida y techo si carezco de tu libertad?»

He aquí la eterna cuestión, el hilo ininterrumpido de la historia.

La canción es una fuerza motriz; un medio de mutua ayuda, comprensión y desarrollo humano. El pájaro canta solo y subviene con ellos a sus necesidades, delimita su área de acción. Respondiendo a un impulso ineludible también Mikel comenzó a cantar, tanto para desarrollar su personalidad como para compenetrarse con su pueblo. Encontró, en el viejo acervo de la canción popular, el eco de odios y amores seculares, la fachada secreta de la historia oculta tras un cantar. Y emprendió su divulgación, cantando de pueblo en pueblo, haciendo que los vascos del sur conociéramos cómo se expresaban nuestros hermanos de allende el Pirineo, y tuviéramos, de esta forma, noticia de una faceta distinta de nuestra historia.

Recuerdo cómo en cierta ocasión, comentando con el pintor Zumeta de cuál sería la mejor manera de iniciar a nuestros paisanos en materia de arte, si remontándonos a la antigüedad o viceversa, éste me contestó: «Tanto Haendel y Bach como John Cage son desconocidos por el gran público; como ambas alternativas me parecen iguales, yo preferiría comenzar por los músicos más recientes. Teniendo en cuenta que la música de Cage pertenece a la época en la que nosotros vivimos, me parece que nos concierne más directa y profundamente que la de Bach.»

Mikel no se lanzó a los viejos cantares porque temiera a los nuevos. El tiempo nos ha mostrado que esto es así. Se basó en el lenguaje del cancionero antiguo, recibió en él sus primeras letras. Esto le resultó imprescindible para poder expresar los conflictos actuales.

Los pueblos son siempre viejos, siempre nuevos. Y a cada época y en cada lugar concretos, siempre, a través de los siglos. Intentan dar una respuesta dentro de un estilo propio a la problemática con la que tropiezan; de esta forma asientan su personalidad particular y general. Aquel que en estos viejos

lares no propone algo nuevo, ya sea en el terreno del arte, ya en el de las luchas sociales, está coleccionando méritos para un mundo caduco.

En una época de defensiva la vara de fresno desempeña un papel necesario. ¡Viva el de Pedernales! Pero si alguien que pertenezca a ese pueblo puede superar dicha etapa proponiendo además algo nuevo a sus contemporáneos, puede decirse que, por encima de los imperios, ha propuesto al mundo algo inédito. Desafía no sólo a sus paisanos sino al mundo. Surge así la apuesta. Es que es testigo de su tiempo y de su solar. O sea, ha pasado de la defensiva a la ofensiva.

Llueve sin cesar, cosa desconocida en nuestra tierra. Después de esto los imperios habrán de vérselas con algo de otro nivel —un nuevo escalón-límite les habrá sido impuesto— si pretenden seguir teniendo acceso al pueblo. Algunos, invocando el realismo, se aferran en exclusiva a las viejas formas, pero no pueden ocultar su ardiente deseo de andar entre nubes, ya sea por miedo a lo desconocido, ya por razones tácticas, ya por el mero comercialismo.

Los personajes de J. Joyce son bien conocidos; su lenguaje es llano. Pero las redes que componen el tejido de su «Ulises» colocaron en equilibrio inestable este mundo. En la evolución profesional de Mikel se distinguen tres etapas; la de los viejos cantares poco conocidos, la de la armonización de los poemas de los poetas de nuestro tiempo y la de las canciones que quieren crear nuevas palabras a base de juegos fónicos. No manipula las épocas en el sentido de las agujas de un reloj: corre igual de atrás hacia adelante como se retrotrae; entrecruzándolas unas con otras, ora saltando, ora mezclando, para clasificarlas luego en un orden especial. No puede decirse que el paraíso perdido lo haya atrapado en sus seductoras redes. A fin de dar testimonio, resucita la experiencia de los viejos cantares y la maneja en su escueta desnudez, como es el caso de *Txinaurria* o *Lanikan ezin egin*. Pero también, a veces utiliza, a

fin de poner de manifiesto la perennidad de ciertos cantares, recursos tales como cambiar su sonoridad siempre que la canción se lo permita dentro del respeto de la estructura de la misma, ya sea para bruñirla como si de una piedra se tratase (*Haika, mutil* es un caso), ya para imprimirle su fuerza peculiar (como en el caso del cantar de Bereterretxe).

Mikel ha puesto música a poemas de Espriu, Landart, Aresti, Brecht, Lete y Harzabal.

La infancia marca al individuo e imprime su sello a su manera de hacer música; por ello diremos algo de la de Mikel. En uno de los momentos más amargos de esta incesante diáspora que nos dispersa desde hace tanto, ausente el padre —no, claro está, por su voluntad—, Mikel y su familia tuvieron que abandonar su hogar como tantos otros lo hicieran. Hallaron cobijo en un caserío de Lekeitio, no lejos de Gernika, de forma que pudieron tener noticias directas de lo que allí acaeciera. Mikel guarda dentro de sí, desde entonces, los gritos de los pescadores cuando marchaban a la mar, llevaban a cabo sus maniobras o voceaban sus mercancías. El mismo confiesa que en sus canciones experimentales ha bebido en esas fuentes y que, aunque posteriormente haya llovido mucho, no las ha olvidado. Por eso denomina a dicha colección de canciones «Lekeitio».

En la canción titulada *Baztan* parece que habla, situándose fuera del tiempo, con Bach o con algún zuberotarra; en *Gernika* se nota que vive en el mundo del *Auswitz* de Penderecki y del *Guernica* de Picasso; en cuanto a *Baga-biga-higa*, no es difícil ver en ella la secuela de las amargas experiencias vividas en la última guerra mundial por el dramaturgo Roy Hart y los experimentos sobre la biología de las palabras que efectuó basándose en las mismas. ¿Las cuatro en Gernika o Gernika en los cuatro? Todos hallaron demasiado estrechos y agotados los cauces tradicionales del lenguaje musical, plástico o teatral; se dirigieron a la desnudez humana a fin de erigir un lenguaje moderno sobre las ruinas del tradicional que destrizaron. En

efecto, cuando se hace subir el canto desde los pies, frecuentemente la palabra aparece despojada de su esencia para interpretar el temblor de tierra o la inquietud de la atmósfera; demasiado limitada, redicha. La palabra nos llega tan caótica y contaminada del mundo que la creó, perdidas su fuerza y esencia. Hemos aprendido a desfigurarla y a decir por medio de ella la mentira como si fuera la verdad. Y tantas veces hemos hecho uso de estos juegos que, a la postre, ignoramos nosotros mismos que cuál es la verdad y cuál la mentira. No sucede lo mismo con el rugido y el mugido; no es tan fácil disimular el suspiro y el grito, y el temor de que no podamos nuevamente volver al paraíso perdido nos penetra hasta la médula de los huesos. Existe ese temor en Mikel, pero en sus cantos *Baga-biga-higa*, *Dialektikaren laudorioa* y *Gernika* especialmente, se ha aventurado a franquear el umbral.

Muchas veces me ha parecido que la voz de Mikel suena como si surgiera de una garganta-mandíbula-lengua paralizada; violenta, penosamente, como un perro estropeado que arrastra sus cuartos traseros contra el suelo para librarse —con dolor y esfuerzo— de sus excrementos. De ello resulta un dramatismo tosco y la atmósfera opaca que rodea al sueño.

El tercer disco es redondo. Comienza su primera cara con *Haika, mutil*, previamente grabado, y acaba con el cantar de *Bereterretxe*; la segunda, por su parte, empieza con *Gernika*, en el que se interpola —casualmente— la estrofa que falta en el cantar de *Bereterretxe*, y, tal como se inició, acaba con la melodía de *Haika, mutil*.

Tienen estas canciones todas las ventajas e inconvenientes (mas éstos) de la música en conserva. *Gernika* o *Zaude lasai* los hemos escuchado mas ásperos y fuertes en labios de Mikel cuando ha cantado ante público. Pero, de todas formas, es interesante editar estos discos con la finalidad de contemplar en su conjunto una buena muestra del cantar de Mikel y con la de que su obra llegue a amplias capas del público. Habiendo

pertenecido nuestro cantante al extinguido Ez Dok Amairu, me ha parecido importante que se grabara este disco a fin de conocer por qué sendas continuó Mikel tras abandonar aquel campo de experimentación que fue *Baga-biga-biga sentikaria*, cuando, hace un par de años, al hallarse sus componentes ante la necesidad de concretar y afianzar sus personalidades, optaron por separarse y emprender caminos diferentes.

J.A. ARZE, 1974